

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Mitxelena, Irigaray, Gorostiaga, Villasante, Arrue ta Oleaga euskaltzaiñak. Zugasti, Arruza, San Martin, Alvarez Empanza, Loidi, Etxaniz ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da bertan diñoana, baiña Gorostiaga jaunak diño argibide bat eta gauza batzuk falta direala. Dira: urgazleak izentau zireanean Cirile Arzubiaga jauna eta Xabier Peña jauna bere eskabidez egin zireala. Gorostiaga jaunak aipatu eban Euskera aldizkariak iru illebeterik bein urten bear leukeala artzen daben batzuk berari esan deutsien legez. Irigoyen jaunak adierazo eban igaz dirua eskas izanik ale bakar bat egin zala beste urteetan argitaratu direan baiño orrialde gitxiagogaz. Eta Oleaga jaunak esan eban berak gurako dauela urteko ale osoa. Irigaray jaunak be gura leuke urrengo au agertu daiten: Irigaray jaunak aipatu eban novela-sariak emon baiño obeto litzakeala erradioko solasaldietarako sariak emotea. Irigoyen-ek esan eban elitzakeala gauza gatxa izango Ahorro-Kaxaren batean orretarako dirua topetea. Novela saria iragarria dago gaiñera. Arrue jaunak novela-sariaren alde berba egin eban eta elitzakeala kendu bear beste sariketa mueta batzuk sortuagaitik, novela-sariak beste alderdi batzuetan be garrantzi andikoak izaten direalako (1).

Arrue jaunak diño urgazleak urtean bein bakarrik izentau bear litzakezala eta euskaltzaiñak eskabidea idatzita aurrez ekarri bear leukiela merituak eta gaiñerakoak aipaturik. Eta izentetako batzarra Agustukoa izan leitekeala diño. Ontzat artu da bere esana.

Gorostiaga jaunak diño (j) (*geografia* zelan idatzi, j-gaz ala g-gaz, erabagi bear litzakeala. Eta ori dala-ta solasaldi luze bat izan da batzarrekoen artean. Olango gauzak erabagiteko biderik egokiena idatzirik ekarte da zeatz eta meatz adierazorik arrazoiak.

Irigaray jaunak diño norbaiteri eskatu bear jakola eskoletan erabili bear direan berbakaz iztegi labor bat egin daien, eta diño idazten direan ipuin eta lanetan naturaltasuna ta gatza bear litzakeala batez be, gauza askoren gaiñetik. Oleaga-k diñoitso guzti ori idatzita ekarri bear leukeala.

Oleaga-k diño Bilboko Apezpiku jaunagaz egon dala eta esan eutsala Erromatik guretzat ezer etorri dan jakin gura genduala eta guretzat etorri ezpada be zerbaiten barri gura geunkeala, eta erantzun eutson Monseñor Tardini-ren karta labor bat artu ebala berari eta Bibliaren zeregiñean ibili direan guztieri goresmenak egiñik. Une aretan ezekiala non eukan karte ta baleitekeala konturatu barik apurtu izatea be. Begiratuko dauela, eta edozein modutara be, berak karta bategaz erantzungo deusku-la.

Oleaga-k diño Euskaltzaindiaren Laguntzailleak eratu debela Bilbon eta batzar batean zortzi sail egin zireala bat izentaurik sail bakotxeko, bera buruzagi, Gorostia-ga bigarren buruzagi eta Arruza idazkari direala. Ain zuzen be atzo izan zan beste batzar bat bakotxak bere zeregiñaren kontua emonik.

San Martin jaunak be Euskaltzaindiaren Laguntzailleez diardu. Diño Alvarez Emparanza idazkaritzat artu dabela. Eibarren dirua batuten asi dira eta amar jaunek milla peseta bakotxak emon ditu. Diño Eibarren eun eta larogeitik gora ume asi direala euskerazko eskoletan eta illero illero sariak emoeko gogotan dabilzala. Iruñean be Euskaltzaindiaren Laguntzaille legez zerbait eratu gura ei dabe. Loidi jauna eta Aita Larrañaga apezpiku jauna Irun eta Ondarrabian Laguntzailleak sortzeko gelditu ei dira.

Arrue jaunak diño Euskaltzaindiak Euskalerra osora zuzendurik dei bat egin bear dauela diru eske, eta laguntzailleak orretan laguntasuna eskeiñi leiela. Gero batuten dan dirua banatu leiteke bearrizan andienetarako ta baita laguntzailleen zeregiñetarako. Mitxelenak diño dirua emon leitekeala edozertarako edo gauza jakin baterako. Prestau bedi bear dan legez dei ori eta zabaldu bedi jenteak adierazo daian zeinbat eta zelango epetan emongo dauen dirua.

Arruza jaunak diño ia Euskaltzaindiaren ezkutua erabili leitekean *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak* izenagaz paperak egiteko. Erabili leiteke.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

(1) Irigoyen diruzaiñak urtearen azkenera arteko kontuak dakaz. Urtearen azkenean geunkan dirua 42.565,23 pta. da.